Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Luis Olaeta Erezuma

Gernika-Lumo, Bizkaia (1926-2000)

Aurkibidea

Biografia

1926an Lumoko Mendiola baserrian jaioa. Bere emazte Benigna Asla Ortuzarrekin batera egin zitzaion elkarrizketa. Elkarrizketa egin zitzaionean 67 urte zituen.

Zintak

GER-023

- **Proiektua**: Lumoko historia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Zarrabeitia, Alberto
- **Data**: 1994-01-01
- **Iraupena**: 54 min
- **Euskarria**: Audio Analog
- **Kodifikatzailea**: Agirrebeña, Aintzane

Pasarteak

1. Urteberrri egunean eta Erregenetan umeak kantari

- **Erref**: GER-023/004
- **Iraupena**: 0:00:54. **Hasi**: 00:05:43. **Bukatu**: 00:06:37
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Gabon kantak

Laburpena:
Urteberri egunean umeek zer kantatzen zuten. Erregenetan ere kantatzen zuten: "Erregiak datoz...".

2. Gabonetako jakiak; txakolina etxean egindakoa

- **Erref**: GER-023/005
- **Iraupena**: 0:01:41. **Hasi**: 00:06:37. **Bukatu**: 00:08:18
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:
Gabonetan jateko berezia egoten zen: olio-aza, bisigua, karakolak eta oilaskoa. Gainean intxaur-saltsa eta konpota. Nola prestatzen zuten. Gabonetan ardoa edaten zen; baina, bestela, egunerokoan, txakolina. Etxean egiten zuten txakolina; sagardoa ere bai, baina gutxiago. Etxean zeukaten prentsa.

3. Txarriboda eguna; txerrikiak gatzetan kontserbatu

- **Erref**: GER-023/010
- **Iraupena**: 0:02:22. **Hasi**: 00:10:10. **Bukatu**: 00:12:32
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:
Txarriboda egunean oso goiz jaikitzen ziren goizean, eguna argitu baino lehen. Eguna argitzen zenean hiltzen zuten txerria. Haren gibelarekin eta baratxuri-zoparekin hamaiketakoa egiten zuten. Gauean porru-patatak, "gixerrie" eta odolosteak afaltzeko. Txerriaren pusketak (hankak, belarriak eta bestelakoak) gatzetan kontserbatzen ziren. Egun berezietan jaten zituzten; inauterietan, esaterako.

4. Gabonetako ogi zatia txakurrarentzat, amorratu ez zedin

- **Erref**: GER-023/011
- **Iraupena**: 0:00:54. **Hasi**: 00:12:32. **Bukatu**: 00:13:26

- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:
Gabonetan ogiari zati bat kendu eta gorde egiten zen. Hurrengo urtean txakurrari ematen zitzaion jateko, amorratu ez zedin. Etxean egiten zuten ogia.

5. San Juanetako ohiturak eta kanta

- **Erref**: GER-023/017
- **Iraupena**: 0:02:49. **Hasi**: 00:17:13. **Bukatu**: 00:20:02
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- Aisia » Jai-giroa » San Juan

Laburpena:
San Juan egunean loreez egindako "kargatxue" bedeinkatu egiten zuten eta hurrengo urteko sutara botatzeko gorde, "lapurrek eta sorgiñek eta subiek eta sapuek erretako". Suaren bueltan ibiltzen ziren eta abestu egiten zuten: "San Juan bagilian, denpora ederrian...". Balio ez zuten gauzak erretzen zituzten sutan. San Juan egunean atartean lizarra, berakatza, garia eta loreak ipintzeko ohitura.

6. Erramu eguneko eta Kandelario eguneko gurutze bedeinkatuak

- **Erref**: GER-023/019
- **Iraupena**: 0:02:09. **Hasi**: 00:20:09. **Bukatu**: 00:22:18
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Beste batzuk
- Aisia » Jai-giroa » Kandelario Eguna
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:
Erramu egunean eta Kandelario egunean gurutzeak egiten ziren. Desberdinak izaten ziren; bakoitza nolakoa izaten zen. Soroetan ipintzen ziren gero. Geroago abadea etortzen zen etxerik etxea, soroak bedeinkatzen. Ordainetan, arrautzak jasotzen zituen.

7. Abadea garia batzen, maiordomoen laguntzaz

- **Erref**: GER-023/020
- **Iraupena**: 0:01:24. **Hasi**: 00:22:18. **Bukatu**: 00:23:42
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:
Abadea soroak bedeinkatzera joaten zen etxerik etxe. Gero, sakristauaren laguntzaz arrautzak batzen zituen. Geroago, garia ere batzen zuen bi maiordomoren laguntzaz. Maiordomoak gizon ezkonberriak izaten ziren. Luis izan ei zen azkenetakoa.

8. Buldak ordaintzea derrigorrezkoa

- **Erref**: GER-023/023
- **Iraupena**: 0:02:17. **Hasi**: 00:24:48. **Bukatu**: 00:27:05
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Garizuma eta Errauts Eguna
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:
Hiletetan buldak ordaindu behar izaten ziren. Derrigorra izaten zen buldak ordaintzea. Hura ordaindu ezean, urteko bariku guztietan bijilia egin behar; bestela, Garizumako barikuetan bakarrik. Nolakoak izaten ziren.

9. Familiaren elizako hilarria ere arreoan

- **Erref**: GER-023/032
- **Iraupena**: 0:02:31. **Hasi**: 00:32:05. **Bukatu**: 00:34:36
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:
Antzina etxean ospatzen ziren ezkontzak. Luisen amari entzundako kontuak. Arreoan gurdikada gehien eramaten zuena izaten zen kategoria handienekoa. Arreoaren aurretik auzoko emakume bat joaten zen buru gainean otzara hartuta. Familiaren elizako hilarria eramaten zuen, azpiko mantel beltza eta gaineko mantel zuri eta guzti. Goizean goiz ezkondu, gero arreoa ekarri eta ondoren bazkaria.

10. Gari-jotzea auzolanean; lanak amaitutakoan, otordua

- **Erref**: GER-023/036
- **Iraupena**: 0:02:04. **Hasi**: 00:36:51. **Bukatu**: 00:38:55
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:
Gari-jotzea auzolanean egiten zen. Umeek ere behar asko egiten zuten. Hasieran, eskuz jotzen zen garia, harrietan kolpatuz. Gero makinak etorri ziren. Lanak amaitutakoan otordua egiten zuten.

11. Umetako jolasak

- **Erref**: GER-023/051
- **Iraupena**: 0:02:38. **Hasi**: 00:50:07. **Bukatu**: 00:52:45
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:
Umetako jolasak: "tabaka", "fidoka". Nola jolasten zuten. "Txirrinbolak"; nola egiten zituzten eta nola jolasten zuten. Mutilak "tronpa"rekin ere ibiltzen ziren. Lurrezko kanikak. Pilotan eta futbolean ere ibiltzen ziren mutilak. Intxaurrekin nola jolasten zuten. "Bolaketan" ere ibiltzen ziren. Lumon ez zegoen bolatokirik; Mendatan bai.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-24

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com